




Kolejialde inguruak


 rain garbiketan eta txukunketan diharduein parrokixako kanpantorretik ataratako bista hau sarritan ikusiko zeuen seguruenik beste lekuren batian, baiña eztogu uste fotografixa hau bera izango zanik, beste antzeko bat baiño. Gure iritziz, komentaitia merezi dauen hainbat berezitasun dakolako ekarri dogu gaur sail honetara. Ondo erreparau ezkerre, badira, bai, unibersidadian eta, batez be, estaziño alde horretan aldatu diran xehetasunak. Izan be, argazkixa 1929-1930 ingurukua da, Lizaur eta Kortazar arkitekto ezagunen zuzendaritzepean ikastetxe bikain horri konponketa haundi samarrak egin otsaiñekua.

Unibersidadiarean aurrekaldeko fatxada dotorian ezta, itxura batian, barrikuntza nabarmenik somaitten. Hala eta be, leixo bat kendu zan orduko obra haretan: ezkerreko torreioian hirugarren pisuan beste biren artian agiri dan balkoitxo moduko hori; eta bi barri zabaldu ziran: areto nagusixan aurreko parteko bigarrena eta honen parian beheko plantan beste bat, aldamenian eukain leixuen ereduari jarraituaz. Erreteilla barrixa be modutu zan teillatu daniari, baiña orainguan lehenengo aldiz porlanezko sapaixa ifinitta, fotografixiak ederto erakusten dauen lez. Dana dala, aldakuntzarik sakonenak eztira hemen ikusten: errekalde, atzekalde eta eskumako fatxadetako leixuak eta balkoiak oso irregularrak ziranez, "bardinddu" egin zittuain; eta klaustrora emuten dauen ikasgetetako atiekin beste hainbeste egin zan.

Baiña deigarrixenak, akaso, estaziñuaren inguruan dagozen soruak, zelaixak eta ortuak dittugu. Dozenerdi bat urte lehenago gauzatutako trenbidiak zein estaziñoko etxe, kotxe-leku eta biltegiak zati ederrak ohostu arren, artian be lur-sail ugari gaketan zan inguru horreitan. Gerra ondorengo lehenengo hamarkadetan beteko ziran, eskumakaldekuak behintzat: Galdoseneko zerria, "Tximist" pila-fabrika barrixa, Fundiziño eta Garañeko anplaziñuak, bestiak beste, terreno horreitan jasoko ziran; Ulma-eta beranduago, 1960ko hamarkadan. Ezkerraldeko saillak etziran asko aldatu, kuartela, sahiesbidia, gasonlindegixia eta abar egin ziran arte. Azkenaldixan majo bete dan kanposantu azpikalde horretan garbi agerketan dira Etxeberrialdetik etoren bide zaharra, Patriñeko etxetxua eta Goribargoitte baserri bere txaboliarekin; eskuman, barriz, Ibarrao futbol-kanpo zaharra izandakua, Garañeko fabrika, Goribar zaharra baserri, Aloña-alde txaleta eta, han urriñian, Garibai eta Madalena auzuetako baserri batzuk ikusten dira.

J. E.

Dionisio Mugarzak ataratako fotografixa hau bere seme Luisen birtatez eskuratu dogu. Milla esker!